

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala****Behin betiko onespina ematea Mungian auzotaxi zerbitzua erabiltzeko diru-laguntzak ematzeari arautzen duen Udal Ordenantzari.**

2021eko urriaren 29ko Osoko Bilkuran Udaltzaren Mungian Auzotaxi Zerbitzua Erabiltzeari Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren proiektua hasiera batean onartzea erabaki du; bertan azaltzen denez, jendaurreko epearen barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behin betiko onartuko da.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan ezarritakoaren arabera, ordenantzaren proiektua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2021ko azaroaren 16an; 220 zenbakia) eta Udalaren gardentasun atarian informazio publikoan argitaratu da eta entzunaldiko epea izan du.

7/1985 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurreko epea amaitu ostean, ikusi da ez dela erreklamaziorik ez iradokizunik azaldu; eta beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluari jarraituz (Toki Administrazioa eraberritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak aldatzen duena), behin betiko onartzen da eta berorren testua osorik argitaratuko da.

Ordenantza hori Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarrita dagoen epea igaro ostean sartuko da indarrean.

Mungian, 2022ko urtarrilaren 3an.—Lurralde Arloko Zinegotzi Eskuordetua, 2019ko garagarriaren 19ko Alkatetza Dekretuaren bidez emondako eskuordetza (2019ko abuztuaren 1ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 145. zenbakian, argitaratua), Alaitz Erkoreka Baraiazarra

**MUNGIAN AUZOTAXI ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK
DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN
DUEN UDAL ORDENANTZA****ZIOEN AZALPENA**

Mungiako Udalak lurraldearen oreka eta mugikortasun jasangarria indartzeko apustuaren alde jarraitzen du lanean. Auzotaxi zerbitzuaren bidez, herriko bizilagunei aukera arin, merke eta jasangarri bat eskainiko zaie euren etxetik hirigunerako joan-etorrietarako, eta bide batez, udalerriko garraio publikoari bultzada emango zaio.

Auzotaxiak herriko nekazal-auzoetan errolatuta dauden herritarrek herrigunera prezio murriztuan gerturatzeko taxi zerbitzua da. Izan ere, herrigunearan daude osasun-zentroa, ikastetxeak, postetxea, udaletxea, banketxeak, dendak eta garraio publikoko gainerako zerbitzuak ere.

1. artikulua. — Diru-laguntzaren xedea

Oinarri-arautzaileon xedea hauxe da: Mungiako herritarrek Auzotaxia erabilia egingo dituzten joan-etorrien gastuak diruz laguntzea (diru-laguntza eskatzen dutenen gastuak hain zuzen ere). Diru-laguntzak dagokion deialdian zehaztuko diren aurrekontu kredituetatik ordainduko dira.

2. artikulua. — Betebehar Orokorrak

Edozelan ere, dagokion deialdian eskatzen direnez gain, ondoko baldintzak bete beharko dira:

1. Onuradunak:

— Honako hauek eskatu ahal izango dituzte laguntzak:

- a) Mungian hirigunetik kanpo errolatutako pertsona adinez nagusiak (hirigunetzat zer hartuko den jakiteko, ikusi ordenantza honen eranskinean doan planoan).
- b) Mungian hirigunetik kanpo errolatutako 15-18 urte bitarteko pertsonak (hirigunetzat zer hartuko den jakiteko, ikusi ordenantza honen eranskinean doan planoan). Herritar horiek, Auzotaxien zerbitzua erabiltzeko, ezinbestean aurkeztu beharko dute euren gurasoek edo legezko tutoreek sinatutako baimena eta pertsona erantzulearen NANaren fotokopia.

— Eskaria egiten dutenetik hasi eta diru-laguntza eskuratzen duten bitarte gutxian, egunean izan beharko dituzte udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

— Ezingo dira diru-laguntzen onuradun izan Mungiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-laguntzen Ordenantza Arautzailearen 10. artikulua azaldutako egoeretakoren baten dauden pertsonak; ezta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan ezarritakoak betetzen ez dituztenak ere.

— Diru-laguntza ematen den epean aldaketarik egongo balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio.

2. Diruz lagundu daitekeen epea:

Urtarrietik abendura arteko epea, abuztua kenduta.

3. Diruz lagun daitekeena. Joan-etorrien baldintzak eta Auzotaxi zerbitzuaren erabilera-arauak:

Honako baldintzak betetzen dituzten bidaiak lagun daitezke diruz:

— Udalerrri barruko bidaiak. Hau da, erabiltzailearen etxebizitzatik hirigunerako bidaiak edo alderantzizkoak.

— Interesdunek bidaiak horiek egin beharko dituzte taxi-lizentzia Mungian duten eta ekimen honetarako hitzarmena Mungiako Udalarekin sinatu duten taxilariekin.



- Eranskinean ageri diren auzoetakoren batetik herrigunera (eta alderantziz) egindako bidaiak.
 - Auzotaxi zerbitzuaren egutegia eta ordutegia hauek dira:
 - Astelehenetik barikura: 7:30etik 20:00etara. Zapatuetan: 9:00etatik 14:00etara.
 - Domeketan, jai-egunetan eta abuztuan: ez da Auzotaxi zerbitzurik egongo.
 - Eremu bereko erabiltzaile bat baino gehiagok zerbitzua eskatzen dutenean, ibilgailua partekatu ahal izango da. Partekatzeari dagokionez, ibilgailuak baimenduta dituen jesarleku kopurua izango da muga. Ibilgailuaren jesarleku guztiak bete beharko dira ibilbide eta ordutegi bera duten zerbitzuak eskatzen direnean.
 - Zerbitzua zolatuta dauden bideetan eskainiko da.
4. Ondokoak dira onuradunen betebeharrak:
- Joan-etorrien baldintzak eta Auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak betetzea.
 - Udalak egin beharreko egiaztapenak ahalbideratu eta eskatzen den informazio guztia ematea.

3. artikulua. – Diru-laguntza ematea eta euron zenbatekoa

3.1. Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura ondokoa izango da: Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenean ematea.

Bidaia bakoitzaren kostua 12 eurokoa izango da, eta Udalak diruz lagundutako kopurua hauxe:

- 10 euro bidaia bakoitzeko, lehenengo berrogeita hamar bidaietan (0-50).
- 6 euro bidaia bakoitzeko, hurrengo berrogeita hamar bidaietan (51-100)
- 4 euro bidaia bakoitzeko, hortik gorako berrogeita hamar bidaietan (101-150).

Pertsona bakoitzak gehienez ere 150 bidaia egin ahal izango ditu urtean.

3.2. Joan-etorriko bidaia bakoitza bidaia bi balira bezala konputatuko da.

3.3. Onuradunei dagozkien Diru-laguntzen zenbatekoa, edozein kasutan ere, konsignazio ekonomikoa egotearen mende geratzen da.

4. artikulua. – Eskariak aurkezteko epea eta lekua

4.1. Eskariak aurkezteko epea urteko deialdian ezarritakoa izango da.

Eskaria aurkeztu beharko da horretarako egindako inprimikiaren bidez, Mungiako Udaleko Erregistro Orokorrean, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2025 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen bideetakoren bat erabilita.

4.2. Eskatzaileak behar bezala bete eta sinatutako eskabide-orriekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Eskatzailea beste baten ordezkari modura ari bada, beste horren NANaren kopia ere aurkeztu beharko du eta, horretaz gain, ahalordetza egiaztatzen duen agiria (familia-liburua...).
- b) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Euron orde, interesdunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango du; Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikulua ezarritakoan oinarrituta.
- c) Erantzukizuneko adierazpena, adierazten duena eskatzailea ez dagoela sartuta araudiak ezarritako debeku-egoeretan. Hona hemen aipatutako araudia: batetik, Mungiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzen 13. artikulua; eta bestetik, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua.



- d) Erantzukizuneko adierazpena, adierazten duena eskatzaileak deialdiak jarritako baldintzak betetzen dituela.
- e) Udalak ofizios aztertu du erabiltzailea Biztanleen Erroldan erroldatuta dagoela eta udalarekiko betebeharrak fiskaletan egunean dagoela.
- f) Dokumentazio osagarria ere eskatu ahal izango da.

4.3. Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, Udaleko Lurralde Arloak jakinarazpen bat bidaliko dio eskatzaileari, 10 (hamar) egun baliadun emanez falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta okerrak zuzendu ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela jakinaraziko zaio.

Eskaerak aztertzerakoan edo geroago edozein momentutan, udalak interesdunari eskatu ahal izango dio 4.2 atalean aurreikusi ez den dokumentazio osagarria aurkeztea, ikusteko bidezkoa den diru-laguntza onartzea, mantentzea edo ukatzea.

4.4. Eskaera egitean, eskatzaileak oinarri hauek eta deialdi hau baldintza barik onartzen ditu, eta gainera, batez ere, baimena ematen dio diru-laguntza bideratuko duen udal arloari ondoko datuak lortu dituzan: betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dagoela egiaztatzen duten datuak. Udalarari baimen hori eman ezean, eskatzaileak ziurtagiri horiek berak aurkeztu beharko ditu diru-laguntza eskariarekin atera.

4.5. Udalak eskarian agertzen den helbidea erabiliko du jakinarazpenak egiteko. Eskatzaileak berak informatu beharko du Udala, berariaz, eskarian agertzen diren datuetakoren bat, edozein, aldatzen bada, batez ere, aldatu dena eskatzailearen helbidea bada.

4.6. Interesdunari jakinaraziko zaion eskaria onartu ondoren, Udalak eskatzaileari alta emango dio Auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan eta erabiltzaileak Auzotaxi txartela eskuratu ahal izango du. Txartel hori bakoitzarena eta besterenezina izango da eta, edozein kasutan, taxi Zerbitzua erabiltzeko akreditazio gisa erabiliko da. Txarto erabiliz gero, diru-laguntza errebokatzea ekarriko du.

5. artikulua. — Ebazpena eta diru-laguntzak kudeatzea

5.1. Erabiltzaileak Auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan izena emanda egon behar du eta Auzotaxi txartela eskuratuta izan beharko du. Izen emate hori eskaria onartu ondoren egingo da eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Izen-ematea urtero berriztatu beharko da, eskabide-orria betez.

5.2. Diru-laguntza kudeatuko da hitzarmena sinatu duten taxilarien lankidetzarekin, honetarako Mungiako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, eta oinarri hauetan jasotako berezitasunei kalterik eragin gabe.

5.3. Auzotaxiaren txartela eskuratu ondoren, bidaiari egiteko interesa duen pertsonak deitu edo whatsapp-a bidali beharko du txartelean agertuko den telefonora.

Zerbitzua erabiltzaileak eskatu beharko du bezperako arratsaldeko zortziak (20:00) baino lehen. Aldez aurretik abisatu gabe ere eska daiteke zerbitzua baina, kasu horretan, baliteke adjudikaziodunak zerbitzua egiteko modurik ez izatea. Ondorioz, aldez aurretik abisatu gabe zerbitzua eskatzen denean, ezin da zerbitzu hori bermatu.

5.4. Bidaiari ekin aurretik, taxilariak egiaztatu egin beharko du erabiltzaileak eta berak eskatutako zerbitzuak bete egiten dituztela Autotaxi ekimeneko diru-laguntzak jasotzeko baldintzak. Horretarako, honako pauso hauek egin beharko ditu (erabiltzaileak lagundu egin beharko dio diru-laguntza jaso nahi badu):

- Auzotaxi txartela: erabiltzaileari Auzotaxi txartela eskatuko dio, eta indarrean dagoela egiaztatu beharko du.
- Nortasuna egiaztatu: taxilariak egiaztatu egin beharko du zerbitzua eskatu duen pertsona Auzotaxi txartelean agertzen den pertsona bera dela.
- Ibilbidea: taxilariak egiaztatuko du erabiltzaileak eskatu duen ibilbidea udalerririk barukoa dela eta Auzotaxi ekimenak hartzen duen eremuaren barruan sartzen dela.



5.5. Egindako bidaia bakoitzeko, erabiltzaileak taxilariari bonu bat emango dio (bonu hori Udaletxean erosiko du aurretiaz).

5.6. Erabiltzaileak udaletxean eskuratuko ditu bonuak. Bonu bakoitza 10 bidaiarako izango da. Kostua ondokoa izango da:

- Bidaia kopurua 0-50 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 20 euroko bonua.
- Bidaia kopurua 51-100 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 60 euroko bonua.
- Bidaia kopurua 101-150 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 80 euroko bonua.

5.7. Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urteko 150 joan-etorritarako bonuak eskuratu ahal izango ditu.

Erabiltzaile bakoitzak ezin izango du aldi berean bonu bat baino gehiago eskuratu eta azkeneko bonua erosi zuenetik hurrengoaz erosi arte gutxienez astebete igaro beharko da.

5.8. Bidaia amaitzean, erabiltzaileak bonu bat emango dio taxilariari. Taxilariak, berriaz, zerbitzu horri dagokion faktura emango dio erabiltzaileari.

5.9. Udalak hitzarmenean ezarrita dagoen kopurua ordainduko dio taxilariari bidaia hori egiteagatik. Kopuru hori bat etorriko da erabiltzaileari diru-laguntza bidez emandako kopuruarekin (3.2 artikuluan ezarritakoan oinarrituta) eta Udalari bonuaren ordainetan emandako kopuruarekin.

5.10. Taxi-bonuak bakoitzarenak eta besterenezinak dira. Erabiltzaileak ezin izango du bonurik eskuratu Udalarekin zorrik izanez gero.

5.11. Bonu bakoitzak bidaia baterako balio du eta taxilariak jasoko du aurkeztu eta ordaindu dakion.

5.12. Taxilariak erregistroak behar bezala beteta izango dituzte, bonuen egiaztagiari, zerbitzuaren data eta ordua adieraziz eta baita erabiltzailea eta helmuga ere.

6.13. Urte horretan eskuratutako bonuek abenduaren 31ra arte balioko dute; eta erabili ez badira, ezin izango dira itzuli.

6. artikulua. — Diru-laguntza ordaintzea

Onduradunentzako diru-laguntza taxilariari zuzenean ordainduko zaie, kasu honetan taxilariak izango direlako endosu-hartzaileak. Edozelan ere, taxilariak gero kobratzekotan onartu dituzten pagamenduengatik emango zaien kopurua erabiltzaileari aitortu eta ordaindu zaion diru-laguntzat hartuko da.

7. artikulua. — Diru-laguntza justifikatzea

Diru-laguntza hitzarmena sinatu duten taxilarien bidez egingo da. Taxilariak zerbitzuaren bonuak aurkeztu beharko dituzte, zerbitzuaren erabiltzaileari emandako fakturen kopiekin batera.

Artikulu honetan eta gainerakoetan ezarritakoak ez dio inola ere eragiten erabiltzaileek taxilariari Auzotaxi zerbitzu bakoitzeko faktura eskatzeko duten eskubideari. Izan ere, bete egingo da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak legeriak ezarritakoa fakturatu beharrari buruz; baita aplikagarria den gainerako legeria ere.

8. artikulua. — Kontsignazioa

8.1. Deialdian zehaztuko da diru-laguntzetarako gehieneko kopurua eta zein aurrekontu-partidari dagokion.

8.2. Aurrekontuaren ekitaldiaren barruan emandako laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatutako kontsignazioa, edota aurrekontu aldaketak onartuko balira, horiek eguneratzearen ondorioz geratzen dena.

8.3. Diru-laguntza honi dagokion aurrekontuko kontsignazioa amaiera-epea baino lehenago agortuz gero, berehala iragarki bidez emango da horren berri. Iragarki hori Udalaren web-orrian eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da. Horrenbestez, amaitutzat emango da ekimena eta ez da diru-laguntza gehiago emango.



8.4. Laguntzak 10 joan-etorrirako bonua erostean emango dira. Diru-laguntza eman arren, taxilariak gero justifikatu egin beharko du eta 2. puntuari adierazitako aurrekontu mugak kontuan izango dira.

9. artikulua.— *Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna*

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza xede bera duten beste Administrazio Publiko batzuen laguntzekin bateragarria izango da, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

10. artikulua.— *Diru-laguntza aldatzea*

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, aldatu egin liteke diru-laguntzak emateko ebazpena. Era berean, ebazpen hori aldatu egingo da, edozein kasutan ere, beste erakunde pribatu zein publikoetatik laguntza jasoz gero.

11. artikulua.— *Diru-laguntza itzultzea*


Pertsona onuradunak oinarri hauetan ezarritako ezein baldintza zein aplika daitekeen gainontzeko araudia ez betetzeak diru-laguntza eskuratzeko eskubidea guztiz edo zati batean galtzea ekarriko luke eta osorik edo zati batean dagozkion berandutza-interesak itzultzeko betebeharra sortuko luke. Erabakia diru-laguntzak emateko organo eskudunari dagokio.

12. artikulua.— *Araubide juridikoa*

Diru-laguntza hauek oinarriotan ezarritakoaz gain, Mungiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-laguntzen Ordenantza Arautzailean ezarritakoaren arabera arautuko dira, baita azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera ere.



ERANSKINA / ANEXO



(Oharra: Markatuta agertzen den gunearen barruan erroldatuta daudenek ezin izango dute zerbitzua erabili.

Nota: los empadronados en la zona delimitada no podrán utilizar el servicio).